

## **Vitalen Gizarte Ekintzak berriro Denon Eskolari laguntzen dio Euskal Eskola Publikoaren Jaia antolatzen**

**Gasteiz, 2013ko maiatzaren 21a.-** Vitalen Gizarte Ekintzak lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu du Denon Eskola batasunarekin, halako eraz ezen, Erakundeak Euskal Eskola Publikoaren Jaia antolatzen laguntzeko konpromisoa hartzen baitu. Ospakizun hori Murgian egingo da, ekainaren 2an, euskal eskola publiko, kalitateko, euskaldun, integratzaile eta parte-hartzezkoaren balioa indarrean ipintzeko asmoarekin. Orobat, Erakundeak kolektibo hark urtean zehar egiten dituen jarduerak ere laguntzen ditu.

Kultura arloko lankidetzeta-hitzarmen horren bidez, Vital Kutxa Gizarte Ekintzak Denon Eskolari eskaintzen dion laguntza berritzen du, zeren, bestalde, esan behar baita, Arabako Eskola Publikoko ikasle-guraso elkartearen Federazio gisa, kolektibo horrek haien % 95 ordezkaten duela, 10.000 familia eta 24.000 eskola-ume dituelarik elkartekide. Erakundeak 5.460 euroko ekarpena egingo du.

Akordio hori Vital Kutxa Gizarte Ekintzaren lehentasunezko helburuetako baten barruan dago, hau da, eskola-umeen hezkuntza eta prestakuntzarekiko arreta, beti ere beraien gizarteratzea erraztearren, herritar libre, arduratsu eta konprometituak izanik, gizartearen parte direnez gero.

Denon Eskolak urte osoko jarduera-egitarau bat prestatzen du urtero, berak ordezkaten dituen elkartearen interesak eta nahiak bideratzea xede. Haien artean nabarmentzekoa izaten da urtero lurralde historiko batean antolatzen den jaia, zein oraingoan Murgian ospatuko baita datorren ekainaren 2an. Goiburutzat izango du 'Haziak indartu', eta helburutzat, "ahaleginak bateratzea, kezkak ezagutaraztea eta iritzi publikoa sentsibilizatzea, euskal eskola publiko, kalitateko, euskaldun, integratzaile eta parte-hartzezkoa aldarrikatuz".

Era berean, Vital Kutxa Gizarte Ekintzaren ekarpen horrek Denon Eskolari ahalbidetuko dio, urtean zehar egiten dituen ohiko betekizunak ere aurrera eramatea, honako hauek, besteak beste: informazio- eta aholkularitza-zerbitzuak, hezkuntzari eta hizkuntza-normalizazioko jarduerari buruzko informaziorako bulegoa irekita edukitzea, etab.

- **Harremanetarako pertsona:**

Mikel Pérez Alonso

Telefonoa: 945 197 623